



TESTULIBURUEN DOAKOTASUN PROGRAMA

JARRAIBIDEAK

AURKIBIDEA

SARRERA	3
1. IKASLE HARTZAILEAK.....	4
2. SORTEN KONFIGURAZIOA	5
3. DOAKOTASUN PROGRAMAREN EKARPENAREN EHUNEKOAK	6
4. LEGEZKO ORDEZKARIEK PROGRAMARI UKO EGITEA	6
5. IKASTETXEEK HEZKUNTZA DEPARTAMENTUARI JAKINARAZTEA	6
6. TESTULIBURUAK EMATEA	6
7. TESTULIBURUAK ITZULTZEA, IKASTURTEA BUKATU DELAKO EDO IKASTETXEZ ALDATZEAGATIK	7
7.1. TESTULIBURUAK BERRIKUSTEA:	7
7.1.1. Eskumena eta epea.....	7
7.1.2. Liburuen egoera	8
7.1.3. Ondorioak	8
7.2. DEPARTAMENTUARI JAKINARAZTEA:.....	8
8. MATRIKULA IGOERA. AUKERAKO EDO GAINDITU GABEKO IRAKASGAIEN ONDORIOZ SORTUTAKO BEHAR BERRIAK, ETA PROGRAMA ELEANIZTUNAK EZARTZEAK DAKARTZAN BEHARRAK	8
8.1. KONTZEPTUA:.....	8
8.2. ORDAINKETA:	8
9. IKASLEEI EGOZTEN AHAL EZ ZAIZKIEN ARRAZOIENGATIK HONDATUTAKO EDO ITZULI GABEKO MATERIALAK ORDEZTEKO GASTUAK FINANTZATZEA	9
10. IKASTURTEAN ZEHAR IKASLEAK SARTZEA	9
10.1. SARTZE BERRIA:	9
10.2. IKASTETXE ALDAKETA:	9
11. DIRU ZUZKIDURA ETA HAREN APLIKAZIOA	9
12. DOAKOTASUN PROGRAMA KUDEATZEKO SISTEMA	10
12.1. AUKERAK:.....	10
12.1.1. Liburu berriak.....	10
12.1.2. Ordeztea	10
12.2. TESTULIBURUAK AUKERATZEA, IKASTETXEA PRESTATURIKO MATERIALA, EDO ERABILERA OROKORREKO MATERIALA, ORDEZTEA AUKERATU DUTEN IKASTETXEETAN:	11
12.3. HEZKUNTZA DEPARTAMENTUARI JAKINARAZTEA:	11
12.4. IKASTETXEA EMANDAKO BONUAREN BIDEZ KUDEATZEA:.....	11
12.4.1. Bona ematea:.....	11
12.5. IKASTETXEA BERAK AUKERATUTAKO KUDEAKETA:	12
13. IKASTETXE OSATUGABEAK	12
14. JASOTAKO KOPURUEN BEHIN BETIKO JUSTIFIKAZIOA.....	13
14.1. KONTABILITATE DOKUMENTAZIOA ZAINZTEA:	14

14.2.ERABILI GABEKO KOPURUAK ITZULTZEA:..... 14

SARRERA

Testuliburuaren Doakotasun Programa

[EDUCAko jarraibideak](#)

- Testuliburuaren Doakotasun Programan ikasle hauek daude sarturik: Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Oinarrizko Mailako Heziketa Zikloak ikasten dituzten ikasle guztiak, Nafarroako Foru Komunitateko funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeetan ari direnak.
- Oinarrizko irakaskuntzetako ikasleek **bost ikasturtez** erabiltzeko modukoak izan beharko dira liburuak, Oinarrizko irakaskuntzarako testuliburuak finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legearen arabera, zeina abenduaren 30eko 19/2011 Foru Legeak aldatu baitzuen (256. NAO).
- Jarraibide hauetan bi eduki mota daude: batetik, orokorrak, ikastetxe guztietarako berberak, edozein izanik ere aukeratutako kudeaketa-sistema; eta, bestetik, kudeaketa-sistema bakoitzerako zehatzagoak.
- Ikastetxe publiko zein itunduek EDUCA erabili beharko dute datu guztiak sartzeko.
- **Posta elektronikoa:** Hezkuntza Departamentuaren eta ikastetxe publikoen eta itunduen arteko komunikazioetarako, helbide elektronikoa hau erabiliko da:
gratuidad.libros.texto@navarra.es
- Ikasturte bakoitzean, ikastetxe bakoitzaren egoera izanen da aitzineko ikasturteetan hartutako erabakien ondoriozkoa (sorten berritze osoa, berritze partziala edo sorta zaharrak atxikitzea).

1. IKASLE HARTZAILEAK

Hartzaileak izanen dira funts publikoak jasotzen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan matrikulatutako ikasle hauek:

- **Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. ikasmailetan matrikulatutako ikasleak**
 - Sortak ikasturte bakoitzean berritzen dira.
 - Lehen Hezkuntzako lehen zikloan erabiltzen diren testuliburuak edo ikastetxeak egindako materialek ezaugarri bereziak dituzte eta, horregatik, Doakotasun Programan modu berezitan tratatu behar dira. Irailaren 27ko 61/2010 Foru Dekretuaren 2.2 artikulua ezartzen du ziklo horretan ez dela eskatuko testuliburuak iraunkorrak izatea eta haiek ikasturte guztietan erosi beharko direla. Hori hala izanik ere, erabilitako material motagatik hura berritzea nahitaezkoa ez den irakasgaietan, ikastetxeak erabaki dezake materialak berrerabiltzea hurrengo ikasturteetan, Lehen Hezkuntzako gainerako ikasmailetan bezala. Beraz, ikastetxeak haiekin zer egin erabakitzen ahalko du, ondoko aukeren artean:
 - Ikasleei uztea.
 - Ikastetxean berrerabiltzea (liburutegian, erabilera orokorrerako...)
 - Testuliburuak mankomunitateen bidez birziklatzea (lehenik eta behin, liburuari kendu beharko zaizkio estalkia eta ikaslearen identifikazio datuak dituen orria).
- **Lehen Hezkuntzako gainerako ikasmailetan, DBHn eta Oinarrizko Mailako Heziketa Zikloetan matrikulatutako ikasleak.**

BERRITZEA	BERRITZE PARTZIALA	ORDEZTEA (liburu zaharrekin jarraitzea)
Azken 5 urteetan materialik erosi edo prestatu ez den ikasmailetarako da.	Sortak elkarren segidako bi ikasturtetan berritzea dakar. <u>Oharrak:</u> Berritze partziala aukeratzen duten ikastetxeetan, berritu gabeko liburuetatik % 8 arte ordeztu ahalko dira lehen urtean.	<ul style="list-style-type: none"> • Oraindik ere 5 urte baino gutxiagoko sortak erabiltzen badira, bakarrik % 0,5 ordeztu ahalko da narriadura dela eta. • Sortek 5 urte baino gehiago badituzte, gehienez ere % 25 ordeztu ahalko da.
<p>Hautaturiko aukera: 5 urte baino gehiagoko sortak dituzten ikastetxe guztiei "Hautaturiko aukera" agiria bidaliko zaie martxoan, adieraz dezaten berritu, partzialki berritu edo sorta zaharrekin jarraitu (ordeztu) nahi duten.</p>		

- **Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak**

- Hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleen egoerak askotarikoak dira eta Doakotasun Programak haiei guztiei eman behar die erantzuna. Horregatik, halako diagnostikoa izan eta material egokituak erabiltzen duen ikasle bakoitzarentzat urteko zuzkidura bat ezarri da, nahitaezko irakaskuntzako zeinahi ikasmaitan matrikulaturik dagoela ere.
- HPB duten ikasleek beren ikaskideen material bera erabiltzen badute, ikaskideen tratamendu bera izanen dute Doakotasun Programan.
- Departamentuari jakinaraztea: ikastetxe publikoak edo itunduak izan, EDUCA aplikaziotik hartuko da informazioa. Horretarako, ikastetxeek **abuztuaren 31 baino lehen** bete beharko dituzte datuak: *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Ukoak eta HPB (EDUCAko jarraibideak: 3.2).*

2. SORTEN KONFIGURAZIOA

Sortak konfiguratzeko orduan, kontuan hartu behar da sorten bidez helburu pedagogikoak lortu behar direla; hau da, hezkuntza-proiektuan, curriculum-proiektuan eta zikloko edo gelako programazioan adierazitako helburuak.

Honako hauek egon daitezke sortetan:

- **Ikasliburuak.**
- **Ikastetxeak prestaturiko curriculum-materiala:** ikastetxeko irakasleek edo irakasle-taldeek eginikoa.
- **Erabilera komuneko curriculum-materiala:** ikasleek eta, hala badagokio, irakasleek partekatzen dituzten materialak dira, edozein dela ere bitartekoa edo euskarria.
- **Liburu digitalak:** Doakotasun Programaren barruan liburu digitalak erostea onetsiko da, baldin eta Foru Legeak ezartzen dituen iraunkortasun eta autosufizientzia baldintzak betetzen badituzte. Ondorio horietarako, honako definizio hauek hartuko dira aintzat:
 - **Liburu digitala:** Curriculum-edukiak erabiltzeko lizentzia. Hardware-euskarriak gaur egun ez daude Doakotasun Programan jasota
 - **Iraunkortasuna:** Testuliburuaren Doakotasun Programan sartu ahal izateko, argitaletxeek konpromisoa hartu beharko dute liburuak 5 urtez egonen direla indarrean.
 - **Autosufizientzia:** Lizentziak curriculum osora zuzenean sartzeko aukera eman behar du, testuliburu baten baldintza berberetan. Edukiak ez du partziala izan behar.
 - Ikasleak ezin dira behartu hardware-euskarria eta/edo haren osagarriak eskuratzera lizentzia erabiltzeko.

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. ikasmaitan, eta HPB duten ikasleen kasuan, sortak urtero berrituko dira.

Oinarrizko Hezkuntzako gainerako mailetan, konfigurazioa 5 urteko epean mantenduko da eta ezin izanen da aldatu.

3. DOAKOTASUN PROGRAMAREN EKARPENAREN EHUNEKOAK

LEHEN HEZKUNTZA OINARRIZKO MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK		DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	
HAUTATURIKO LIBURUEN KOPURUA	EKARPENAREN EHUNEKOAK	HAUTATURIKO LIBURUEN KOPURUA	EKARPENAREN EHUNEKOAK
1	% 20	1	% 14
2	% 40	2	% 29
3	% 60	3	% 43
4	% 80	4	% 57
5 edo gehiago	% 100	5	% 71
		6	% 86
		7 edo gehiago	% 100

4. LEGEZKO ORDEZKARIEK PROGRAMARI UKO EGITEA

- Programari uko egitea erabakitzen denean, legezko ordezkariak, ikaslea edozein ikasmaitan matrikulaturik egonik ere, "Uko egiteko agiria" bete eta ikastetxean aurkeztu beharko dute, ikastetxeak horretarako adierazten dien epean.
- Uko egiteko agiri hori legezko ordezkariaren eskura izanen da ikastetxean eta webgunean. Halaber, Educan eskuratzen ahal da, hemen: *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Ukoak eta HPB ("PDF txostena sortu" botoia)*, ukoa erregistratu ondoren (EDUCAko jarraibideak: 3.1).

5. IKASTETXEEK HEZKUNTZA DEPARTAMENTUARI JAKINARAZTEA

EDUCA aplikaziotik hartuko da matrikulari eta aukeratutako testuliburuak edo materialari buruzko informazioa. Horregatik, ikastetxeek datuak abuztuaren 31 baino lehenago bete beharko dituzte.

6. TESTULIBURUAK EMATEA

Testuliburuarekin batera, ikastetxeek ikasleen legezko ordezkariari "Emate-agiri" bat eman beharko diete –ikasleak edozein ikasmaitan matrikulaturik daudela ere–, eta agiri horretan agertuko da emandako liburuen zerrenda. Legezko ordezkariak hori sinatu, eta ikastetxean aurkeztu beharko

dute. Ikastetxeak EDUCAn erregistratuko du (*Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Liburu en esleipena [“Hartu-agiria” botoia]*), esleipena erregistratu ondoren. (EDUCAko jarraibideak: 4)

7. TESTULIBURUAK ITZULTZEA, IKASTURTEA BUKATU DELAKO EDO IKASTETXEZ ALDATZEAGATIK

Oinarrizko irakaskuntzarako testuliburu finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legearen garapenerako erregelamendua onetsi zen irailaren 27ko 61/2010 Foru Dekretuaren bidez, eta bertako 7.1 artikulua haxe dio: “Testuliburuaren Doakotasun Programaren hartzailea den ikasleak behar bezala eta kontuz erabili eta zaindu beharko ditu liburuak; horrez gain, ikasturtea amaitzen denean edo ikaslea beste ikastetxeren batera joaten delako baja ematen zaionean, testuliburuak ongi zainduta eta erabilia itzultzeko betebeharra izanen du”.

Ikasturtea bukatutakoan edo ikaslea beste ikastetxe batera doanean, ikastetxeek “Itzulketa-agiria” emanen diete, sinatua, hala eskatzen duten ikasleen legezko ordezkariari. Egiazki itzultitako liburuak agertuko dira agiri horretan. Educan, *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Itzulketak (“Itzulketa-agiria” botoia)*, itzulketa erregistratu ondoren. Badago “Itzulketa eskutitz” bat ere, non itzuli ez diren edo hondatu diren liburuak zehazten baitira. (EDUCAko jarraibideak: 5)

Testuliburuak itzultzea ikasturtea amaitutakoan:

Testuliburuak ekainean itzuli beharko dira, ikasturtea amaitutakoan, ikastetxe bakoitzak ezarritako moduan eta egunetan.

Ikastetxe aldaketa:

Ikasle bat ikastetxe batetik bestera joaten bada apirilaren 30a baino lehen, testuliburuak entregatzen dituela begiratu da, eta “Itzulketa-agiria” luzatuko zaio. Horren erudia Educan sortzen da (*Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Itzulketak*). Legezko ordezkariari emanen zaien ziurtagiri horretan, destinoko ikastetxeari adieraziko zaio liburuak entregatu direla eta aipatu da zer kontserbazio egoeratan dauden.

Zaintzea:

Erregelamenduaren 5.3 artikuluekin bat: "funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeek haietan matrikulatutako ikasleek erabilitako testuliburuak ongi erabil daitezen zainduko dute, bai eta iraun dezaten ere, testuliburuak erabiltzen dituzten aldietan".

7.1. TESTULIBURUAK BERRIKUSTEA:

7.1.1. Eskumena eta epea

Ikastetxeko Eskola Kontseiluak aukeratutako batzordeak (zeina Oinarrizko irakaskuntzarako testuliburu finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legean aipatzen baita) testuliburu guztiak berrikusiko ditu ikasturtea hasi baino lehen, batzordeak berak ezarritako prozedurari jarraikiz; hala xedatu zuen martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legearen garapenerako erregelamendua onetsi zuen irailaren 27ko 61/2010 Foru Dekretuko 13.2 artikulua.

7.1.2. Liburuen egoera

Ikastetxe publikoek nahiz itunduek EDUCAn idatziko dute zein den liburuen kontserbazio egoera, eta aipatuko dute zer liburu ez diren itzuli edo hondatuta dauden.

7.1.3. Ondorioak

Materiala ez itzultzeak edo hondaturiko materiala ez ordezteak ikasleari eragotziko dio Doakotasun Programan sartzea, materiala itzultzen edo ordezten ez duen bitartean.

7.2. DEPARTAMENTUARI JAKINARAZTEA:

Ikastetxe publikoen zein itunduen kasuan, EDUCA aplikaziotik hartuko da informazioa. Horretarako, ikastetxeek abuztuaren 31 baino lehenago bete beharko dituzte datuak.

EDUCAn, materialak konfiguratzen dira, testuliburuekin batera; hemen: *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Ikastetxearen konfigurazioa*. Ondoren, sorten esleipenak egiten dira, hemendik: *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Liburuen esleipena*.

8. MATRIKULA IGOERA. AUKERAKO EDO GAINDITU GABEKO IRAKASGAIEN ONDORIOZ SORTUTAKO BEHAR BERRIAK, ETA PROGRAMA ELEANIZTUNAK EZARTZEAK DAKARTZAN BEHARRAK

8.1. KONTZEPTUA:

Matrikula igoera dagoela esaten da, ikastetxean ikasmaila bateko talde guztietako ikasleen kopuru osoa igo bada, ikasturte baten bukaeratik hurrengoaren hasierara.

8.2. ORDAINKETA:

- Matrikula igoera ordainduko da Hezkuntza Departamentuak eskura dituen datuen arabera.
- Ikastetxe publikoetan eta itunduetan, matrikula igoerari buruzko informazioa EDUCA aplikaziotik hartuko da; beraz, informazio hori eguneratuta egon beharko da abuztuaren 31n.
- Testuliburuak eskuratu beharra sortzen bada aukerako irakasgaien ondorioz, aurreko ikasturteetan gainditu gabeko irakasgaiak daudelako edo programa eleaniztunak ezarri direlako, Hezkuntza Departamentuari eskatuko zaio. Horretarako, EDUCAn (*Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Kudeaketa modalitatea*) eskura izanen da “Aukerako irakasgaiak hautatzearen edo gainditu gabeko irakasgaien ondoriozko beharrak” izeneko agiria, eta hori posta elektronikoz bidali beharko da urriaren 31 baino lehen, txosten edo azalpen txiki batekin batera.

9. IKASLEEI EGOZTEN AHAL EZ ZAIZKIEN ARRAZOIENGATIK HONDATUTAKO EDO ITZULI GABEKO MATERIALAK ORDEZTEKO GASTUAK FINANTZATZEA

- Ikastetxeak erosiko ditu, zuzenean, hondatutako edo itzuli gabeko testuliburuak, eta hori finantzatuko da aurreko ikasturteko gerakinaren –erabili gabeko zenbatekoen– kargura, erabilera orokorreko material didaktikoa eta informatikoa erosi aitzin.
- Baldin eta Administrazioak ikastetxe bati egiten dion ekarpena, guztira, ez bada aski aurreko paragrafoan aipatu bezala testuliburuak erosketa finantzatzeko, ikastetxeak txosten bat bidali beharko dio Hezkuntza Departamentuari, inguruabar hori kontabilitatearen aldetik justifikatzeko, eta defizita finantzatzeko eskatuko dio. Eskaera hori egingen da abuztuaren bukaeran ikastetxeei bidaliko diegun inprimaki baten bidez (TESTULIBURUAK ORDEZTEKO eta/edo PARTZIALKI BERRITZEKO ZENBATEKOEN ESKAERA izeneko inprimakia).
- Hezkuntza Departamentuak ikastetxeei eska diezaieke hondatutako materiala emateko; horrela, materiala aztertu eta hondatuta dagoela egiaztatuko du, eta, behar izanez gero, liburuak ordezteko aintzat hartu behar diren irizpideak aldatuko ditu.

10. IKASTURTEAN ZEHAR IKASLEAK SARTZEA

10.1. SARTZE BERRIA:

Ikasturtean zehar ikasle berriak sartzen badira ikastetxean eta, ondorioz, testuliburuak erosi behar badira, ikastetxeari emanen zaio horiek erosteko behar den dirua.

Ikastetxe publikoetako zein itunduetako informazioa EDUCAtik hartuko da.

10.2. IKASTETXE ALDAKETA:

Destinoko ikastetxeak “Itzulketa-agiria” emateko eskatuko die ikaslearen legezko ordezkariari. Ziurtagiri horrek itzulketa behar bezala egin dela esaten badu, destinoko ikastetxeak liburuak emanen dizkio ikasleari, ikastetxeak berak dituenak, edo ikastetxeak berak erosten dituenak.

11. DIRU ZUZKIDURA ETA HAREN APLIKAZIOA

- **Foru agindu batek urtero finkatuko du Administrazioak gehienez ere zer ekarpen egingen duen** Testuliburuak Doakotasun Programa finantzatzeko.

Foru agindu hori onetsi ondoren, horren berri emanen zaie ikastetxeei.

- **Transferentzia:** Hezkuntza Departamentuak ikastetxeetako funtzionamendu gastuetarako baimendutako kontuetan sartuko ditu ordaindu beharreko zenbatekoak, Testuliburuaren Doakotasun Programa gauzatu ahal izateko. Ikasturteko lehen hiruhilekoan, ordainketa-prozesua egingen da, eta, lehenik, guztizkoaren % 80 ordainduko da, Hezkuntza Departamentuak abuztuaren 31 baino lehen eskura dituen datuen arabera, eta, ondoren, gainerako % 20, kasuan-kasuan egokiak diren erregularizazioak eginda.
- **Aplikazioa:** Administrazioak ikastetxe bati egiten dion guztizko ekarpena handiagoa bada Doakotasun Programa aplikatzen sortutako gastua baino, jarraibide hauen hamargarren puntuaren arabera eta ordezte beharrak finantzaturik, gerakina baliatzen ahalko da erabilera orokorreko material didaktikoa eta informatikoa erosteko ikasturtean zehar, abenduaren 1a baino lehen.
- Baldin eta Administrazioak ikasle bakoitzeko onetsitako modulua txikiagoa bada Doakotasun Programa aplikatzen sortutako gastua baino, ikasleen legezko ordezkariak ordaindu beharko dute diferentzia hori, baina, hala ere, dagokion ikasturtean testuliburu erabiltzeko eskubidea besterik ez dute bereganatuko horregatik.

12. DOAKOTASUN PROGRAMA KUDEATZEKO SISTEMA

Programa kudeatzeko sistema ikasturtearen hasieran finkatuko da, eta ezin izanen da aldatu ikasturtean zehar.

12.1. AUKERAK:

12.1.1. Liburu berriak

Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Oinarrizko Mailako Heziketa Zikloetako ikasleak dituzten ikastetxeek programa kudeatzeko bi modalitate hauetako bat aukeratu beharko dute:

- Ikastetxeak emandako bonua.
- Ikastetxeak berak aukeratutako kudeaketa.

12.1.2. Ordeztea

Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6.eko eta DBHko 1., 2., 3. eta 4.eko ikasleak dituzten ikastetxeek, ordezte hautatu badute, "ikasleak berak aukeratutako kudeaketa" hartuko dute.

Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea: Informazio hau EDUCA aplikaziotik hartuko da. Horretarako, ikastetxeek abuztuaren 31 baino lehenago bete beharko dituzte datuak. Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Kudeaketa modalitatea.

12.2. TESTULIBURUAK AUKERATZEA, IKASTETXEAK PRESTATURIKO MATERIALA, EDO ERABILERA OROKORREKO MATERIALA, ORDEZTEA AUKERATU DUTEN IKASTETXEETAN:

Hezkuntza Departamentuak informazioa jarriko du ikastetxeen eskura, argialetxeek testuliburuak gainean emandako datuekin. Ikastetxe publikoek zein itunduek informazio hori EDUCAn aplikazioan izanen dute, eta han bertan adierazten ahalko dute beren aukera. *(Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Ikastetxearen konfigurazioa).*

EDUCAn liburuak aukeratzeko eta **sortak konfiguratzeko** unean, arreta berezia jarri behar zaio zenbait gauzari:

- Liburu sorten esleipena egitea ikasle bakoitzari (bestela, ez da ordainketarik sortzen).
- Liburu sorta SORTA BERRIEKIN konfiguratzeko ari diren ikastetxeek ez dute hautatu behar "zaharra-ordeztu" oharra duen libururik, ezta 5 urte baino gutxiagoko indarraldia duen libururik ere (erosten deneko urtea + 5).
- Liburu horiek iraungiko dira erosketa-dataren ondoren 5 urte igarota, eta argialetxeak 5 urtez argitaratzeko konpromisoa hartua izanen du.

12.3. HEZKUNTZA DEPARTAMENTUARI JAKINARAZTEA:

Ikastetxe publiko eta itunduak: abuztuaren 31 baino lehen EDUCAn grabatu beharko dute liburuen eta/edo ikastetxeak prestatuturiko materialaren zerrenda, ikasmaita hauetarako aukeratua: Lehen Hezkuntzako 1. eta 2.a, Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6.a, DBHko 1., 2., 3. eta 4.a, eta Oinarrizko Mailako Heziketa Zikloak; dagokion atalean eginen dute hori, eta arreta handiz berretsi beharko dute. *(Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Ikastetxearen konfigurazioa eta Liburuak esleipena).*

12.4. IKASTETXEAK EMANDAKO BONUAREN BIDEZ KUDEATZEA:

Testuliburu berriak aukeratu dituzten ikastetxeek bakarrik hautatzen ahalko dute kudeaketa sistema hau, ez beste ezein ikastetxek.

Gainerako kasuetan, testuliburuak soilik erosiko dira liburuak **ordeztu behar direnean edo matrikula igo denean**. Ikasleak zer ikastetxetan dauden matrikulaturik, ikastetxe horrexek erosi eta emanen dizkie testuliburuak.

Ikasturtea bukatu baino lehenago, aukeratu dituzten testuliburuak zerrenda emanen diete ikastetxeek legezko ordezkariari, haiek nahi duten establezimenduan erreserba ditzaten.

12.4.1. Bonua ematea:

Ikastetxe publiko eta itunduak: ikasleentzako liburuak hautatu beharko dituzte, eta horiek EDUCAn dagokion atalean grabatu; arreta handiz berretsi beharko dute. Programan sartutako ikasle guztiei EDUCAn bitartez luzatuko zaie bonua, uko egin diotenei izan ezik. Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Liburuak esleipena (Bonuak botoia).

Ikastetxe guztiek ikasle bakoitzeko bonu baten lau ale emanen dituzte:

- Ikastetxearentzako alea, ikastetxeak beretako hartuko baitu, bonua ikasleari eman dion frogagiri moduan.

- Ikastetxeak bonuaren honako hiru ale hauek emanen dizkio ikasleari:
- Ikaslearentzako alea: Liburuak hartu ondoren, ikastetxeari itzuliko dio, liburuak non erosi dituen jakin ahal izateko.
- Bi ale liburu dendarentzat:
- Liburu dendak ale bat ikastetxeari itzuliko dio, fakturarekin batera.
- Beste alea liburu dendan geldituko da frogagiri modura.

Ikaslearen legezko ordezkariak Testuliburuaren Doakotasun Programari atxikitako dendetan erosi beharko dituzte testuliburuak (bonua onartuz gero, atxikipena adierazten da), bonuaren 2 aleak emanda.

Saltokiek ikastetxeari eman beharko dizkiote luzatutako fakturak eta bonuaren ale bat.

Ikastetxeak egiaztatu beharko du luzatutako bonuak jasotako fakturekin bat datozeela.

Ikastetxeak testuliburuak ikaslearen izenarekin, ikasmilarekin eta ikastetxearekin identifikatuko ditu, ikasturtea hasi eta lehen hamar egunean. EDUCAK pegatina bat sortuko du ikastetxe publiko eta itunduentzat: Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Liburuaren esleipena (Pegatinak botoia).

12.5. IKASTETXEAK BERAK AUKERATUTAKO KUDEAKETA:

Ikastetxeek testuliburuak eskuratuko dituzte berek ezarritako moduan, eta fakturazioaren aldetik gutxieneko baldintza hauek bete beharko dituzte:

Fakturak ikastetxearen izenean egon beharko dira, eta fakturetarako ezarrita dauden baldintza formal guztiak bete beharko dituzte.

Fakturretan agertu beharko da Doakotasun Programan sartutako testuliburuengatik ordaindu beharreko prezioa (eta ez beste edozein kontzepturengatik ordaindu beharrekoa). Kontzeptu hori garrantzitsua izanen da kontuak onesteko ziurtagiriaren amaierako saldoa kalkulatzeko. Nafarroako Gobernuaren ekarpena gainditzen duen zenbatekoa ikaslearen legezko ordezkariak hartu beharko dute beren gain, irailaren 27ko 61/2010 Foru Dekretuaren 16.2 artikuluan zehazten den moduan (foru dekretu horren bidez onetsi zen Oinarrizko irakaskuntzarako testuliburuak finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea garatzeko erregelamendua)

Fakturak ikastetxeetan aurkeztu beharko dira.

Ikastetxeak testuliburuak ikaslearen izenarekin, ikasmilarekin eta ikastetxearekin identifikatu beharko ditu, ikasturtea hasi eta lehen hamar egunean. Ikastetxe publiko eta itunduetan, EDUCAK pegatina bat sortuko du horretarako. *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Liburuaren esleipena (Pegatinak botoia).*

13. IKASTETXE OSATUGABEAK

Ikastetxe osatugabetzat hartuko dira irakasten duten etapako –edo etapetako– ikasmilak bakoitzeko unitate bat ez dutenak.

Ikastetxe horien egoera berezia kontuan hartzeko, testuliburuak, erabilera orokorreko materialak eta/edo ikastetxeak berak prestatutako materialak erosi behar badira, **ez sorta osoak eskuratu beharra dagoelako**, baizik eta ikasle guztientzat edo batzuentzat liburu solteak erosi beharra dagoelako (ikasmaila desberdinetako ikasleak irakasgai guztietan edo batzuetan multzokatu direlako), honako hauek hartuko ditugu kontuan:

Gainerako ikastetxeei aplikatzen zaizkien baldintza berberak aplikatuko zaizkie: sorten iraupena (5 urte), ordeztea, berritzea, matrikula igoerak, aukerako irakasgaiak eta gainditu gabekoak, eta eleaniztasunari lotutako beharrak (IIP).

Talde batean ikasmaila desberdinak badaude, honela adieraziko da EDUCAn:

Ikasturte batean ikasmaila desberdinetako ikasleak badaude, ikasle bakoitzari bere ikasmailari dagozkion liburuak eta/edo materialak esleitzen ahalko zaizkio.

Ikasle guztiei liburu eta material berak emanda lan egitea erabakitzen bada, liburu eta/edo material horiek esleituko zaizkie EDUCAn.

Aurreko ikasturteekin alderatuta ikasle kopurua aldatzen bada, ez ikasle berriak sartu direlako (matrikula-igoera), eta beharrezkoa bada liburuak erostea ikastetxeak nahikoa liburu ez duelako, horren berri eman beharko da, "Erosketa beharrak ikasmaila bat baino gehiagoko unitateak dituzten ikastetxeetan" izeneko agiria betez. Agiri hori EDUCAn egonen da eskura (*Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Kudeaketa modalitatea*). Aipatutako agiria Hezkuntza Departamentura igorri beharko dute posta elektronikoz, gratuidad.libros.texto@navarra.es helbidera, **urriaren 31 baino lehen. Premia justifikatzen duen txostena erantsi beharko da, eta bertan jaso beharko da zer liburu dituzten eta zer liburu behar dituzten.**

14. JASOTAKO KOPURUEN BEHIN BETIKO JUSTIFIKAZIOA

- **Eskumena, epea eta dokumentazioa:** Testuliburuaren Doakotasun Programako sarreraren eta gastuen behin betiko justifikazioa **eskola kontseiluaren** bidez onetsiko da; horretarako, eskola kontseiluak onetsiko du ikastetxeak testuliburuak erosteko dituen kontuen egoera, eta ateratzen den saldoa adieraziko.
- **Ikastetxe publikoek ekainaren 30a baino lehen** ikastetxeko eskola kontseiluaren ziurtagiria posta elektronikoz igorri beharko dute Hezkuntza Departamentura: gratuidad.libros.texto@navarra.es. "**Kontuak onetsi izanaren ziurtagiria**" dokumentuaren eredia EDUCAn egonen da eskuragarri. Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Kudeaketa modalitatea.
- **Kontuak Onartzeko Ziurtagiriari** dagokionez, **itunpeko ikastetxeek ekainaren 30a baino lehen** bidali beharko dute lehen aipatutako ikastetxeko eskola kontseiluaren ziurtagiria, "Kontuak onartzeko ziurtagiria" izeneko dokumentuaren eredian, posta elektronikoz bidez, gratuidad.libros.texto@navarra.es helbidera, eta **gastuen justifikazio ekonomikoa bete esteka honetan:**

<https://appseducacion.navarra.es/concierta>

14.1.KONTABILITATE DOKUMENTAZIOA ZAINTZEA:

Egindako gastuaren jatorrizko frogagiriak eta gainerako dokumentu ekonomikoak (hauek ere jatorrizkoak) ikastetxeak gordeko ditu, baina, Hezkuntza Departamentuak nahi izanez gero, eskuratzen ahalko ditu.

14.2.ERABILI GABEKO KOPURUAK ITZULTZEA:

- Ikastetxe **itunduetan**, ikastetxeko eskola kontseiluak onetsitako kontabilitatearen arabera zenbatekorik baldin badago Doakotasun Programan aplikatu ez dena eta erabilera orokorreko material didaktikoa eta informatikoa erosteko ere erabili ez dena, diru kopuru hori itzultzeko eskatuko die Hezkuntza Departamentuak.
- Ikastetxe publikoetan, eskola kontseiluak Doakotasun Programarako onetsiriko kontabilitateko saldoa positiboa baldin bada, 250/1992 Foru Dekretuaren, uztailaren 6koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioen funtzionamenduak sortzen dituen diru-sarrera eta gastuen erregimena arautzen duena 16. artikuluan xedatutakoa aplikatzen ahalko da.